

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
77n. ZENBAKIA
UZTAILLA-
DAGONILLA
1984

DIRECCION GENERAL DE MEDIOS DE
COMUNICACION SOCIAL

PERIFERICA *Vizcaya*

Entregados ejemplares al día *5*

Sethe 1.984

[Signature]

Martin Lascaz



JAIK BASERRIETAN
ETA URIETAN

JAIK ZARRENTZAT
ETA GAZTEENTZAT

LANEAN

(Baserri-lanak eta NEBAN)

BEDAR SIKUA

Donibane egun-inguruan etorten giñan etxera opor-aldira eta etxean geiago edo gitxiago bear egin bear izaten zan, batez be anaiak soldadutzan egon ziran aldiañ

Leenengo bearra edo lana, bedar sikua batzea ta ekarte izaten zan: Goizean goizetik asita, auzokoak ebagiten eben bedarra, geienetan domeketan, abadeak olakorik ez egiteko esan arren. Gero bedar ori zabaldu egin bear izaten neban, etxeokaz batera, landa guztian, gero eguerdi-inguruan azpikoz gaiñera ipiñi obeto legortu daiten. Naikoa sikatuta egoanean, sarritan agertzen zan laiño baltza zeruan eta gero trumoiak, iñizetuak, euri-arrisku larria... eta orduan ariñeketan batu bear izaten zan bedar sikua, alperrik galdu barik: Batzutan arin burdiratu eta laztategira eroan eta an ziran etxeko guztien estu-aldiak eta abereak be lanerako estu artu-bearrak. Eta etxera eroateko astirik ez egoanean, pillatu. bedar-metak egin, eta bertan landan itzi. Orretarako be astirik ez ba'egoan, itzi egiten genduan eta bedarra buzti egiten zan, orrelan bere usaiña ta gozotasuna galtzeko.

Lan au egitean sugeak eta zirunak, bedar-artean, bildurra emoten eben.

ARTA-JORREA

Gu opor-aldirako etxera joaten giñanerako, arta-jorrea eginda egoten zan baiña onetan be azkenengo lanak etxeokaz batera egiten nebazan. Lenengo amak artoa meaztu egiten eban, sendoenak eta bear diran beste itzi eta besteak kendu. Arto artean bedarra agertzen zan, batez be txomin-bedarra esaten genduana, bermeo-bedarra be ba-zan bere ize-na, eta au atera arren be barriro agertzen zan eta bear aundia emoten eban. Gero artoaren ondora, sotoetara, lurra urreratu. Eta kontuz ibilli bear artoaren zuztraiai eragin barik, au kategorri zan-eta. Arratsalde erdian, askaria (meriendea) eroaten eban amak solora eta an solo-bastarrean gozo jaten genduan. Iñoz, goi-

zean goizetik lanean asita egon ezkerro, amarretakoa ba bai. Baiña ni goizetik beti, lenengo, mezara joaten nintzan eta solora joan-orduko berandu izaten zan, amarrak inguru.

Solo-basterretako jatordu orreik gozoak izaten ziran: Lurrean zamaua zabaldu, gaiñean ogia (edo taloa), alboan ardaoa, erdian lukainkea ta arrautzak, eta ekin, kontuak kotaten ziran artean.

GARI-LANA

Gariaren lana be estua izaten zan: Egun larberoa ez dan baten ebagi, garandu ez daiten, meta txikiak egin, bakoitxa amar txola ingurukoak, buruak goian zorrotz alkartzen zirala eta oiñak barrenean zabal. Eta luzaro itxaron bear izan ezkerro, meta nagusiak.

Estuagoa zan gari-joteko eguna. Txikia nintzeanean garia eskuz joten genduan: Etxeko ate-aurrean iru arri zabal pendiz eta sendo garia an joteko, egun argia danean txolak soloan zabaldu eguzkiak txiskortu dagizan eta gero txolak pillatu, zokeagaz estutu, leporatu eta etxeara ate-aurrean joteko. Eguerdi inguruan edaria ta zantzoa ugari eta amaitzen zanean, bazkari ederra etxean, etxeokaz eta auzoko laguntzailleak batera dirala.

Gero gari-joteko tramankuluak etorri ziran, lenengo txikia, gero aundiagoak. Onek ordu-pare baten lana amaitzen eban, beste etxe batera joateko. Azkenez garia eraitea be itzi egin zan eta or amaitu ziran gure gari-jotearen egun estu ta pozgarria.

Baserrian egiten nebazan lanak, ez dira aiztutekoak, baiña jazoera batzuk oso gogoangarriak dira: Gari-jotea, zeziña ilten zan eguna, txarria ilten zanekoa, arto-zuritzea, gaztaiña-batzea, mats-batzea ta txakoliña egitea, sagar-batzea ta sagardoa egitea...

MARTINTXU

SARIKETAK

Euskaldunak, banaka batzuk izan ezik, ez garala idazten zaleak, guztiok dakigun gauzea da. Beste alde batetik, gure izkuntzea argitu, garbitu ta indartu gura ba'dogu, idaztea ta ondo idaztea bearrekoa gauzea da.

Orregaitik aspaldiko urteetan sariketak eratu eta txapelketa oneitara dei egiteko oitorea asko zabaldu da.

* * *

Ez da gaurkoa oitura au. Gure kondairan ezagunak dira iparraldean eta joan dan gizaldian L'Abbadie'k eratu ebazan sariketak. Oraintsuago, guda-aurrean, gure Aitzol trebea zan olako erri-lana egiten eta idazlerik ospetsuenak sartu ziran bere leiaketa orreitara. Zori txarrez Aitzol izkilluz il ebenetik eta guda negargarriaren ondoren lez, oitura orrek eten luzea izan eban.

Baiña ona emen, gure egunetan, giro barria eta antxiñako gogo ori barriro biztuta. Gaur, an, or, emen, ugari izaten dira sariketak.

Sariketai buruz esaten dogun au, antzera esan bear dogu berbaldiai eta asteai edo ikastaroai begira. OIakoak be gaur asko zabaldu dira eta au be oitura zarra da Euskalerrian.

* * *

Eta zer lortzen dabe sariketak?

Izkuntza, erabiltzen ez dan neurrian, berbaz naiz idatziz izan, iltera doa, eta iñok erabilten ez dauanean, orduantxe dago ilda. Ori jazo ez daiten, azken negargarri ori etorri ez daiten, euren aletxuak daroez sariketak, berbaz eta idatziz euskerea erabilteko bideak artuta.

Saria irabaztea pozgarri izaten da eta norberaren trebe-almenaren lekuko lez artzen dogu. Orrexegaitik, sariketa oneik bide egokiak dira idazle barriak sortzeko.

* * *

Eta zelako lanak agertzen diran sariketa oneitara?

Lanik geienak oso onak dira, euskera ederrean idatziak, irudimen bizia agertzen dabenak, trebe-bide egokiak artzen dabezenak. Trebebideetan, jakiña, beti gagoz aurrera egiten eta bide luzea dago oraindiño egiteko.

Lan oneik, gaiñera, geienetan argitaratu egiten dira, batez be aldizkarietan, eta ori be euskerea zabaltzeko ta indartzeko bidea da eta aldizkariak eurak be irabazle urtetan dira, lan orreik ondo egiñak eta beste egunero ko lan batzuk baiño egokiagoak izaten diralako, izan be olakoak idazten alegin berezia egiten dabe idazleak.

* * *

Sariketara jolas-giro baten urreratu bear da, galdu naiz irabazi, bata naiz bestea egiteko gogoaz. Lan aurkeztuak ainbat izaten dira, baiña gitxi irabazleak. Ezin pentsau ba norbera dala onena eta norbera onena izan arren be antxiñako esakuneak diñoan lez, "Omero onak be lo egiten dau noizean bein", edo beste era batera esanda, etorria be ez da beti bardiña izaten.

Eta apaltasuna be bear izaten da, iñoz idazle barriak eta sekula ezer idatzi ez dabenak irabazle urten eta idazkortza lanaren lanez amostuta daukan idazle zarrak eta trebeak atzean geratzen diralako. Maikoen utsa? Idazlearen aldi txarra? Nok jakin! Baiña jolas-giroa goratu bear da beti, galdu naiz irabazi, aurkeztea da balio dauana. Eta urrengorako itxaropena ez iñoz galdu, ez orixe!

SARIKETA

SARIAK BANATZEA

(BERMEO'N)

(1984-VI-10)

Amar ditu ekaiñak.
Egun bat emea!
Bermeo'n Batzokiak
sari banatzea.
Gu agertuz batean
fuetak lertzea:
pozak eragin oi dau
biotz-ikarea.

Aurretiez gañezka
Batzokin jentetza
jaiari emon nairik
bear eban aintza.
Ara urreratzean gu
angoen erlantza!

Begietan dirdaitzen
pozaren belatza.

Unerik galdu bage
sariak emoten;
neskatx irripartsuak
izenak erasten,
ta saritu bakotxak
—barrua dardartzen—
txalo artean dautzu
berea jasotei

Sariketa jaitzeko
bazkaria eder.
Or mai-inguru danok

gu alaitsu ager;
esku leunak mairatuz
ardao, ogi, pitxer...
eratuz maiteder.

Nik pentsatzen geroztik
bikain dala ziñez
anaiak sustatzea
olan jai ederrez.
Biotzak indarturik
arnasa nasaiez.
ta Aberria gurenduz
pitxi maitekorrez.

AITA ONAINDIA

BILLA TA BILLA

Zure misterio orren bide zearra?
Billa ta billa, Jauna, ni joan bai banoa.
Ilduraren larri otzak mindu daroa
ene aldatz gorako joanaren baldarra. ▼

¡Nire griña makur onen beera bearra!
Gogo apurraren sakoneko be lainoa
gaindu ezinik amets-mendiko arranoa,
izu-moltzoan galduta goi-bide mearra.

Ez dot nik fede ertzetan itsu gelditu nai,
argi bekit Jaunak lanbro arteko joana,
itxaropen motelok biur bekidazan jai.

Nik ez nakit nun, bai nunbait bazarana.
Barruko gau-olde arro ontan zakidaz kai
ta Zure maite izurduratan bil naizu Jauna.

MORDA UMOAK

Bai trebe gorde oi daroagu guk bakoitzak
gure lur berezi au —izerdi bako lorra—
erosi orde z lapurtua dogun alorra,
gogorkeri eze lodiz esiturik ertzak.

Zorrotz darabilguz alkar-eziñaren ortzak,
baratzeko lau kantoi en ate zain gogorra.
Lepoan darabilgu bakartade agorra
ta begietan, argi orde z, ezpaten dantzak.

Barru sakonean bildur gorria daroat,
eskuetatik maitasuna laprast bai joat,
gorroto z betez geure arrokeri munoak.

Ez betor iñor solo barrura; gu geu naiko
—uzta lapur— inoren maatsak odolteko,
jan da jan geurekeriaren morda umoak.

A. BIDAGUREN A.

BIZI NAI DOT

Jaio ta laster umea doa
amaren bularra billa;
ori bear dau bizi ta azteko
ta orren atzetik dabilla.
Au lortzeko, ona ta ara
bere ama darabilla.
Amak ukatzen botso bularra
egiten dau iskanbilla.

Azten danean, bere aitatxuk
anka-urkulu ibiltan dau.
Jausiko dala? Ez da jausiko,
eusteko dauz eskuak lau.
Bizi, bai, nai dau, bizi daitela
ume berberak ta enparau,
lurran jausita, bere burua
ez dakion arrakalau.

Ume antzera egiten dabe
abere eta txoriak,
baita be, lorak eta landarak,
bizi nai dabe guztiak.
Zenbat geiago gureko dabe
errazoi daben gizonak!
Oneik bizira zuzentzen dabez,
zorrotz, euren zurariak.

Il? Ez dot gure. Bizi? Ori, bai,
egon naitan atsegintzen.
Fededun danok undo dakigu,
bizitza ez dala amaitzen.
Ederragoan ta txarragoan
jakula, zigur, aldatzen.
Onentzat, ona, txarrentzat, txarra,
dala betiko geratzen.

Au bai ederra! Il eta gero,
gorpua doa lurrera,
baña arima, aintzaz beterik,
Jainkoaren besoera.
Gorputza, zer da, ustela baño?
Arima doa pozera;
gero gorputza, biztuten dala,
arimagaz alkartzera.

Lurre onetan edertasun au
ez da ager eraindaño,
gora eldu arte, naiz ain ona izan,
gauza agertzen da laño.
Au emongosku goian daun Aitak,
betidanik betiraño,
Augaitik diño pozez gañezka:
— Ez dot il nai, bizi baño!

Argintxona.

URDURITASUNA

Euskerea goraldurik
ekiñean gabiltza,
gure Erri-izkuntza
indarbarritu nairik.

Eskuan idazkortza
maitasunez beterik
ta, sugarretan biotza
gogoz oñarriturik.

Biziro sendo, argi,
sakon-ederrik jaso
ta, zintzotasun betez
lagundu euskereari.

Gogoan lur, arbaso,
ta zaindu goitasunez
berbeta maitagarri
ori, zaindu zentzunez.

Lengoa aztu barik
egokitu bai, gaurkoz,
geroko doaiturik
zuztraia dun eraingoz.

Jantzi betidun asmoz,
biotzez ongarriturik,
ben-benetako gogoz
sendo bizitzaturik.

Zutik, indartsu, loran,
goratua bedi buruz,
doaitasun betean
betiko adaburuz.

Bedi ludi aurrean
bizi tresna, laingailu,
erritar espirituz
eredu ta ispillu.

Izan bedi argizko
itxaropen iturri:
aomen zoragarritzko
berbeta betegarri.

Muniategi-tar Sabin.

ELANTXOBE

Elantxobe
arkaitzpean
gerizpe;
Ogoñoren
bizkarrean
zuztraiua,
itsasoaren
mirabe.

Oinpean
portua
ta, burukotzat
illerria,
ta, an onela
irarria:

“OTOITZ BAT ETA GERO
ARTE”.

Muniategi-tar Sabin.

GURE MUNDUA

Ba-doa, badoa,
igesi doa!

Suziri-ontzi barrun
mamorro antzeko
soñekoz jantzita
gizona ortzibidez
beren ze-barriko
gogoz urdurituta
ba-doa, ba-doa
munditik at, urrun.
Mundu barrien billa
igesi doa...

Txikia
iruditzen yako

gure mundua
txikia...

Baña, txikia dala
uste izanarren
biziak dargi emen
edaturik itzala.

Emen datza eundaka
izateren bizia
beti bira-biraka
Egilleak ain eder
ereindako azia.

Muniategi-tar Sabin.

BAKEA

Odol usain itzalez
aizea garratz dator
ego ta iparraldez
beren ibilli minkor
deungakeri zitalez.

Egungo gizartean
¿ez al da maitasunik
ez al da ontasunik
mundu, lagun artean
iñolako zentzunik?

¿Ez al da ba gizonik
alkar-anaitasunik,
ez al da bizi pozik
bizitzadun aztarnik
ondamena besterik?

Mundu gudatu baltzez
geituz gure nekea,
itun dator aizea
zinkurin negar otsez
nun eteka bakea.

Bakea nun zagoz
ezpazaitut ikusten?
Deika dabiltz nabarmen
dei ta dei, an ta, emen,
eskuratzeko gogoz.

Oi, bai, zu, ene anai
otoi! Eskari ori
ta, askorena dan nai
ori, lorara bedi
maitetasunez, alai.

Muniategi-tar Sabin.

GORDEXOLA GUDA-TALDEA 84'an

Alkartasun egun bat ospatzeko, urtero egiten dogun lez, aurten be batzartu gara Barakaldo'ko El Regato lez ezagutzen dan auzune eder ortan, Gordexola guda-taldeko gudamutil, senide ta adiskideak. Igaz, oso eguraldi txarra euki genduan baña, aurten, nire ustez, askoz be txarragoa, bai euri, otz, aize ta abar.

Lengo urtetako alkartzeak, Bermeo, Artxanda ta abarren izaten ziran urtero aldatuaz, baña, azken iru urte oneitan. El Regato izan da gure batzarkuntza, leku au, oso sendikor ikusten dot eta, pozik joaten gara nire emaztea ta ni, baita be, beste gudamutillak be ez daben lez okerrik ipintzen, niretzat, El Regato au, artu leike batzarkuntzatzat aurrerantzean. Garai baten, Barakaldo ta burdin lurralde ori, oso oker eta guretzako errimortu bat lez zan, baña gaur, Bilbao baizen errez daukagu bizkaitarrok. Belbil-bitzabal eder ori ta, bestetik, Errontegi'ko zubi zabal ta egokitsuaz, mealur guztia daukagu esku barruan ibillaldi baterako erreztasun guztiakin, esan daigun ba, len, erbestetasun usain bazan, gaur, bitzabal erreztasun oneikin, bai txori-erritik, Tabira ta Lea Artibai'kuok, ikusita dago artu-emon alkar on anaikortasun sendoago daukagula. Gaur ba, ez dago buruauste aundirik mealur ortarako joan-etorri baterako, bai Busturialde, Ondarroa ta bizkaitar guztiontzako.

* * *

Lengo urtean, Orrilla'ren lenengo egunean izan bazan Gordexola gudataldearen eguna, aurten, 13'an egin genduan geure alkartze anaikor baketsua.

Barakaldo'ko auzune ortara elduaz batera, azterkatu neban leku ori be, uoil edo uraldetua izan zala igazko ekatx kaltegarri orregaz, batez be ikusirik, bas-elizaren arpegiz aurre apainketagaz, igaz, ikusi

baten, lastotoki antzerako etxe bat irudin, aurten ostera, bas-eliza baño benetako eleiz nagusi baten antzeko apainkera orregaz, zalantzarik ez dago, etxe ori, ez dala lastotegi ta ez korta, benetako eleiz edo txadon eder bat baiño. Arpegiz, arkupe aundi ta eder bat egiña da, eguraldi txarretan nun atertu notintza asko be askorentzako ta, orregaz gañera, enparantz ori be begiragarriagotua geratu dalako. Eleiz barruak, ez dauka aldakuntz aundirik. Igaz, kare zuri zana, aurten bellegitasunez margotua; dana dala, igaz baño apaintasun obeagotua aurkittu neban bas-eliz ori. Bas-eliza bete beterik dala, arratsaldeko ordu batetan asi zan euzkerazko jaupa edo meza, Leizaola lendakari jaun kideko zala, mezadun abade, Aizpurua tar Erramon jauna, Paul'darra izan zan, Azpeitia'r izlari trebe, alai ta adoretua dan abertzale jatorra Sagastagoitia'tar Eloy'ren laguntzaz emon eban meza deuna.

Jaupa amaitu ondoren, astiro astiro, Efeke-Alde jatetxeruntz bideratu giñan danok. Janketa oturantzarako, 384 maikidetu giñan. Al izan gendunok, norberen leku bat billatzen aleginddu giñan, jakiñekoa dan lez, maiburuan sartu barik, ba, maiburu ori antolatzaile ta burukidentzako mai berezi zan lez, begiruneztua izan zan.

Maiburu ortan egon ziran buruzagi batzuk, Leizaola lendakari jauna, Xabier Caño, Euzko Jaurilaritza'ko aolkaria, Aizpuru tar Erramon Aita, Paul'darra, Sagastagoitia tar Eloy, Nafarrate tar Edorta bere emazteagaz eta ainbat arduradun antolatzaileak, euren emazte ta senideak.

Jan edan eta aupaka baten, lau bat ordu igaro ondoren, azken agur anaikor baten agurtu giñan gure Jaunak gura nai ba'dau datorren urtera arte.

Gorri.

BEAR-BEARREKO GORATZARRE BAT

(GALLASTEGI'TAR KALDI'ri)

Geien baten goratzarre edo omenaldiak, il eta gero egiten jakez, nai-ta askotaz lenagotik ondo irabazita eukiak izan. Eta ez da txarto dagozalako, omenduak beren bizitzan, jakiña! askoz geiego pozgarriak izango litzakezalako baiño.

Goratzarre bat iñork irabazita ba dauka Gallastegi'tar Kauldi apaiz jaun agurgarriak dauko, Andoni deuna'ren eleizan, San Anton'go txadonean eta bertatik egin dauan lan izugarriagaitik bai gizarte arloan eta bai gure izkuntza EUZKERAgaitik. Eta ori, benetan aintzakotzat euki bear doguna da bai kistarrak garan aldetik eta, zelan ez! euzkeltzaleak eta abertzaleak garan aldetik.

On Kauldi apaiz agurgarriak beren eleiza-barrutian eta bertatik egindako lan goragarria, bikaiña, eza-gutu nai izan daben bilbotar guztiak eta bizkaitar askok ezagutzen dabe, ez arrokeria gaitik —ezdau orrelakorik iñoz berak izan— maitasunez da kementsu egindakoak izan diralako, baiña, ori ta guzti be, lozorroan aurkitzen dirala esan leike apaiz goragarri orrengandik laguntzarik edo mesederik geien artutakuak.

* * *

Bai-ta egia da, orain urte bat edo Bilbo-zarra'ko "txikiteruek" omenaldi anaikor bat ospatu eutsoen Andoni Deuna txadon orretan ogeita bost'garren urte-urrena zala-ta. Nai-ta bigungarrian izan bera, ezda nai-koa, erri geiagok esku artu bear dauana bi da.

"Pasisten" aldirik gaiztoenan, arrokeria ta aginpide zitala nagusi zan aldi aretan, gizarte-arloan On Kauldi'k egin ebana egiteko benetan kementsu izan bear zan On Kauldi izan zan lez, Bildur barik barik egia esan eta berak ikusiten ebana orretaraxe zala erakutsiten eban bitartean, nai-ta beren esakerak ta egiten zituan txonitza sutsuakaitik baten baiño geiagotan baitua, espetxeratua izan. Ori gizarte arloan, eta euzkeragaitik egin dauana.

* * *

Bilbo'n lenengoz euzkerazko jaupa edo meza ospatzen asi zan apaiza, on Kauldi izan zan, "San Anton"go txadonean, baiña, ordurako, eta oker ez ba'nago, Donosti'ko "Zeruko Argia" aldizkarian euzkeraz, jakiña! idatziten asita eta jarraitzen ziarduan eta, urren Bilbo'n argitalduten genduan "AGUR" asterokoan eta, gaur-egun, illeroko ZER irakurgarri onetan, mamitsu idatzi be eta illero, nai-ta aspaldiz Artxanda (Bilbo)-ko osatetxe ospetsu baten ogeratuta aurkitzen dan. Ez itz-lauz bakarrik, ainbat olerki laburtxu baiña maitekor idatziten ditu. Gu, egia esateko, ez gara olerkariak eta gitxi ulertzen dogu gai orretan, baiña orixe bai, oso atsegiñak iruditzen jakuz beren olerkitxu orreik, maitasunez gaiñezkoak diralako dan-danak.

Alguzti-dunak urte askotan euki daiela gure artean Gallastegi'tar Kauldi apaiz garbi kementsu ta euzkaltzale jatorra, baiña ba'da ez ba'dan ez dakigu noz-arterañoak garan eta, eskiñi dagitsogun ondo baiño obe-to irabazita daukon omenaldi ospetsu bat, euzkal idazle ta euzkera-zale guztiok. Or dozue idazle bakan onen eretxia.

Altuna'tar Josu.

LONTZI ABA, KARMELDARRA, OLERKARI

(1891-1949)

Gizaseme sutsua, Jainkoaren eta Euskalerrriaren aldeko lanean iñoiz be aspertu etzana. Ekaitz arteko aize zakarrak or-zear eroandako orbela iduri, bere sorlekutik atera ta erbestetua, an Pazifiku itxas-aldeetan, Txile'n be, ainbat lan egin ebana.

Zornotza'ko auzune apaiña dozu Boroa, gizaseme prestu ta argien jatorria leenago ta gaur-egunez; ementxe Zugatza basetxean jaio zan Lontzi Aba 1891-12-4'an. Goi-dei samurrari erantzunik, gaztetxo zala jantzi eban karmeldar abitua Larrea'ko komentuan, 1911'an eskiñi eutsozan Jaunari bere botoak, eta ondoren Markiña, Iruña, Gasteiz eta Begoña'n burutu zituan eliz-ikasketak, 1920'an gotzaiñaren esku-ezartez mezako egiñik.

Esku-ezartez sagaratzuz gero, prai-leak lanari ekin bear dautso. Eta Aita Lontzi gazteak Burgo de Osma'ko karmeldar komentuan egin eban lan gogotsua, eliz-izlari trebe. Gero, 1931'tik 1937'ra batez be, Larrea'ko eta Markiña'ko komentuetan jardun eban Kristoren Itza ereiten, Gogojardun eta Mixiño ugari bazterretan emonik. Bizkaiko erririk geienetan ibilli jakun olantxe.

Larra onetan, naiko luzaro bizimodu zeatza ta latza eroan eban; orduan izan be gaberdian jagi bear izaten zan Larra'ko komentuan, gaberdiko elizotoitzak, Liturgi-orduak, ordu betekoak egiteko. Orrez gaiñera, komentuko diru-zaintza berak eroan eban urtetan, eta ardura aundiz eroan be.

Izatez bizia zalarik be, lagun onazan. Ni iru urtez berarekin bizi izan nintzan ementxe Larra'ko komentuontan; atsegin jakon inguruetan mendi ta bazterrak erakatzea, eta eñoiz astirik izan ezkerro, Bizkargi, San Pedro, Lemoatx, Aramotz naiz Muniteta'ra ibiltaldi begiko bat egiteko, laguntasuna eskatu oi euskun. Ibilliz, Kirikiño'k eta beste euskaltzale askok egin izan dabenez, baserriak ikertzean poza artzen ebala esatea, zozokeria dala dirudi: gure baserritarrai euren lanak aurrera erodateko kemena emon ezezik, euren arteko autu ta alkarizketa jakintsuetatik ainbat itz jator, esaera bitzi, kantu, olerkitxo ta abar jasoteko oitura be ba-eban arek.

Orduan eta gaur be, gure euskaldun baserritarren ezpanetan daukagu gure euskera bizia, jator, bedeinkatua. Ez beiz iñok ezer esan, gaur arrokeriak eraginda, esan oi diran lango tentelkeriak, arein kontra. Gure erria ta gure izkuntza maite dituna baserrira doa benetako euskera, garbi, errez ta oparoa ikasten. Iturri ortako ura edanik asko ikasi eban Aita Lontzi'k; eta ondorenez, ikastetxe nagusi orretan eskolatua, idatzi egin eban aspertu barik, idatzi itz-lauz eta bertsoz, garai aretan Zornotza'n argitaratzen ziran "Jaungoiko-Zale"-n eta "Karmen'go Argia"-n.

1935-37 bitartean alkarregaz bizi izan gintzazan ementxe, Larra'ko komentuan. Ni Elgeta'ko frentera joan nintzen guda sortu zanean; berak emen jarraitu eban, baiña eus-

kal odolaren jarioak guztiz mindu ta naigabetzen ebanik ezin ukatu. Komentura nentorrenetan orixe zan gure autua, guda-oiñetako goraberak. 1937'gko jorraillaren 26'an Hilter'en egazkiñak Gernika austu ebenean, ni Elgeta'tik -Ermu, Markiña, Munitibar'tik zear— aurreko gauan oiñez etorrita Larra'n nengoan, eta bazkal ostean, or iru t'erdiak inguruan bonbots errimeak entzun genduzanean, Bizkargi'ra laguntzeko eskatu eustan, eta nik ezin ezetzik esan; ara igon genduan biok, eta bertatik aurrez-aurre ikusi genduan egazki iltzailleen gorabera ta zalapart guztia. Urriñeko zan etsaiaren eraso ankerra. Gernika gaixoa!

Ormaetxea familia, egiatzko aber-tzalea izanik, aurrean erabillia izan zan frankotarrak sartu ziranean: anaietatik bat fusilatua izan zan, beste batzuk illak eta expetxeratuak. Aita Lontzi, ekaitz illunaren biurria ureratzten ikusiz, Frantzia'ra aldatu zan beste karmeldar batzukaz batera, andik gero Txile'ra jorik. Ango komentuetan, amar urtetan beñik-bein, gogotsu agertu zan lanerako.

Alan be ez eban osasunik eta ezin lan askori oratu arima-zaintzan; goxoeridun ebilkigun aspalditik. Ori gorabera, aal ebana egiñez, legegordetzeari ekin eutson aspertu barik; azkenez, gexotasunak abailduta, gogo-laguntzaz kemendurik eta bere anaiak (karmeldar anaiak) bira zituala, Jaungoikoari emon eutsan bere arima, Viña del mar'eko komentuan, 1949-gko urtarrillaren 15'an.

—Jose I erregetzat ez artzeko inguruko errietan aolkatuten ete ebiltzen.

—Napoleon, Jose Erregea, Ministroak, Arduradunak, Gudalburuak eta Andikiak, baita gudarozte guztiak gerran ondatuak izan eitezela eleizotoitzetan eskatuten ete eben.

Markiña'ko Udalak, eta Etxebarri'ko, Barinaga'ko ta Berritu'ko abadeak prailleen alde jarri ziran, olakorik etzala jazoten ziurtatuz.

Salataria, nor?

Erdi egiak ziran alan eta guzti be salaketa orreik. Norbaitek jakiñen gañean salatu ebazan emengo prailleak. Zoritzarrez, komunidadekoa zan etxekalte ori. Bere izena ixilduko dogu, nai ta azur eta mamizko norbait izan.

Aita Bartolomek bidean artu eban salatariak Abril Gudalburuari egin eutson eskutitza. Karta orrek auxe iñoan: bere komentuko praillei buruz idatzi eutsona egia zala; prailleak urduri egozala Jaurleriak Alkateari bialdutako aginduaz; Napoleon'en serbitzuan inguru oneitan ekiteko prest egoala bera; erantzuna bere lagun On Migel Lamadrid, Ziortza'ko Abata'ren bitartez bialtzeko, bestela, diabrua baiño gaiztoagoak ziran prailleak bera Jaurleriaz artuemonetan ebillela jakiten ba'eben, espetxean sartu edo il egingo ebela-ta.

Salataria praille gazteen eskuetan itxirik, komentuko Nagusia ta Prai Bartolome ainbat lasterren Bilboratu ziran. Oraingoan salataria, guzurti ta maxiolari lez, komentuan espetxeratzeko baimena Abril Gudalburuagandik lortu eben. Alkatearen aginduz olan egin zan.

Baiña agindu ori ez zan luzaroan bete izan. Abril Jaunaren sekretarioa, Luis Etxebarria Berrueta, salatariaren alde egoan, eta Markiña'ko praille batek Mutriku'n Gobernuaren aurka

berba egin ebalakoaren atxikiaz, salataria bere inguruan eukiteko, Desierto'ko komentura eroatea agindu eban.

Desierto'n salataria bere anaien kontra ekiten asi zan an be, baiña azkenez, Abril Jauna ta Sekretarioa beragaz azpertz ziran, eta praillejantzia itxi egiala ta abade-sotanaz jaztera beartu eben.

Bakea etorri jaken Karmeldarrei. Baiña une laburrerako. 1809'ngoa Irailla'ren 30'an komentuak zarratzeko Agindua bota eben Prantzesak. Eta 1815'gn urtera arte ara ta ona sakabanatuta ibilli ziran Markiña'ko prailleak.

Azken txarra

Emen aitatu diran Prantzistarren alde jarri ziranen zoria txarra izan zan benetan.

Etxeko salataria, Ordenatik alde egin ebanetik Castañares bere jaioterriera biurtu zan. Markiña'ko ta Desierto'ko komunidadek egunero, bakotxak erdi-bana, iru erreal ordaintzen eutsoezan. Castañares'tik Madrill'era joan zan. Andik Roa'ra, Prantzes-zale talde batzuen kapellaua lez. Eta azkenez, Prantzesekin batera Prantzi'ta iges egin bear izan eban.

On Migel Lamadrid, Ziortza'ko sasi-Abata, Prantzesen aldetzaillea, gixajoa, guztiengandik urrunduta ta gorrotatua, Gipuzko'ko mendietan ezkatututa ibilli zan.

Luis Etxebarria Berrueta, J. J. Abril Gudalburuaren sekretarioa, Prantzesak eurak be zapuztu eben eta emengoen gorrotoaz, beartsu ta eskale, Prantzira iges egitera beartua izan zan.

Orrelako gertaerak be geure egunotan ikusi izan doguz, gerrateak euren ondorioz sortzen dituen bizitza garratzak.

Zubikarai'tar Joseba.

BERMEO-KO GABON-KANTA



JESUS-en JAYOTZERAKO

1. Abendu Santua da-ta
Eldu da denporia
Gustiyok adora daigun
Kristo-ren jayotzia.

*María, Jose,
Jesus, María,
Abe María,
Amen, amen, Jesus.*

2. Gabonak diraz-eta
Edegi daixu atia,
Geuk be ikusi daigun
Jayo dan infantia.

Abe María...

3. Gabeko amabiyetan,
Emoten daben orduan,
Gure Salbagillia
Etor-da Mundura.

Abe María...

4. Belen-go portalian
Lastochu biyen ganian
Jayo da Jesus Ume
Ganadu artian,

Abe María...

5. Izar dizdiratzallia
Gabaren-gaberdiyan
Agertu zan Zeruan
Jesus jayo zanian.

Abe María...

6. Astua eta idiya
Daukez aldamenian
Arnasaz berotzeko
Otsez dagonian.

Abe María...

7. Astuak arrantzia,
Idiyak arnasia,
Biyak berotzen dabe
Jayo dan infantia.

Abe María...

8. Ollarrak egin eban
Belenian kukurruku,
Kristo jayo zanian
Gabaren gabardi.

Abe María...

9. Gabaren gaberdian
Sortu da marariya,
Belen-go estalpian
Jayo da Eguzkiya.

Abe María...

10. Otsaren ikaraz dago
Jayo dan Umechua,
Bere Amak dirautso:
-Ixi, neure Semechua.

Abe María...

11. Zeu billoxik egonarren
Etzara Zeu probia,
Zeruan josirik dago
Zeuretzako erropia.

Abe María...

12. Nor-ete- da, zer-ete da
Erroparen joskillia,
Andra Santa Isabela,
Santa Joskillia.

Abe María...

13. María Santiximia
Edegi daixu atia,
Geuk be ikusi daigun
Jayo dan infantia.

Abe María...

14. Edegi dira Zeruak,
Ate urregorrikuak,
Eta arekaz batera be
Izar dizdiratsuak.

Abe María...

Berandu be-dator

15. Emoskuzu, emoskuzu
Emongo nai ba-dozu,
Aixia be otsa dago-ta
Lagunak be urrichu.

Abe María...

Eztabenian ezer emoten

16. Emen ezpa-dau ezer
Guazen beste batera,
Jaungoikua dagon lekuan
Ezta ezer falta.

Abe María...

Emoten dabenian eskerrak emon

17. Zeuben emokayakaitik
Ezkerrik-asko jaunak,
Ta Gabon-Zoriontsuak
Bemoskula Jainkuak.

Abe María...

AMA BIRJIÑAREN BARRI-ONAK

Ave Maria, graziaz betia,
Jauna da Zugaz, Andria,
Andra gustien artian bere
Zara Zeu bedeinkatia.

Nazaretako templuan dago
Dontzella eder bat jarririk,
Ixena bere Maria dauko
Graziaz adornaturik.

Atiak eta zerrajak bere
Barrutik daukadaz ichirik.
-Ez ikaratu, Dontzella ederra,
Emen ez dator gixonik.

Aingeru San Gabriel dator
Gixonan forman jantzirik,
Jaungoikuaren Ama ixaterako
Ba-dozu borondaterik.

-Borondatia bai-daukat baña,
Ez daukat merezimenturik,
-Merezimentu daukazulako
Zaukadaz eskojidurik.

-Aingeru ona, Zeuk zer dakazu?
-Zerutik embajadia.
-Humildadia, karidadia,
Jaunaren borondatia.

*Sancta Maria, gratia plena,
Dominus tecum, benedicta tu,
Birjiña Amaren sabel santuan
Salvadoria da sortu.*

Umildadiak edegiten dau
Zeru altuko atiak,
Karidadiak emoten dau
Osasuna ta bakia.

Umildadia ta karidadia
Zara Zeu, Birjiña garbia
Jaungoikuaren mirabetik
Jesusen Ama egin zarana.

URTE-BARRIKO KANTAK

Urte barri-barri
Charri-belarri.
Dakonak eztakonari.
Nik eztakot eta niri.

¡¡Magillando!

Echa gastañak.
Echa inchorrak.
Lau gastaña.
Lau inchorra.

¡¡Mari Montaña!!

¡Kiriki kaña!

Señorita una,
Señorita dos,
¡Echa magillando
Por amor de Dios!

¡Esa bomba! ¡esa bomba!
¡Dale, dale, dale,
Hasta que se rompa!

OARRA: GAUBEKA TA DUOTAR
BIKTOR IRARLEAK ARGITARATUAK
DIRA ABESTI ONEIK (1945'EAN). Iñok
beste antzeko abestirik ba'daki pozik artu ta
argitaratuko doguz.

OLERKARI

Gaztetan asi jakun idazten. Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale", "Ekin" eta "Karmen'go Argia"-n datoz Lontzi Abaren lanak. Argi ta garbi idazten dau, joskera ederrean. Atsegin zituen esaldi luze samarrak, bai itzaldietan eta bai argitaratzen ebazan lanetan. Naikoa idatzi eban. "Karmen'go Argia"-n, esaterako, illero emoten euskun zertxobait, prosaz eta bertsoz. Aldizkari au sortu ta asi zanean, leenengo zenbakian eta gero be bardin, izpar arloan ekin eutson gogotsu. Izparlari —gaur gazetari esan bear ei dogu— zeatza zan, eta zeregin ori be lepoan dauanak egin bear dauanez, bere egitekoa bete eba-la uste dogu. Ak itxita, albiste pilloak

daukaguz or-emen euskal elerti edestirako jakingarri jakuzanak.

Naiz-ta berez A. Lontzi esaldi luze zalea izan, pentsamentu laburrak, motzak, ipuin antzera askotan, eskiñi oi eutsozan irakurleari. Neurtzitz asko ditu zornotzar idazle onek, erreztasun izugarria eukan-eta bertsoak opiltzeko. Idazti eder bat osotzeko lain poesi aurkitu daikaguz gorago aitatu ditugun iru aldizkarietan.

Orrez gaiñ, Txile'n egoala, ipuin liburu bi argitaratu euskuzan bertsoz. Ona: 1) *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* (Santiago de Chile, 1947'g. Mikel Deunaren egunean). 100 orrialde. Eun olerkitxo dira guztira, polito era-tuak. Eta 2) *Lontzi Aba'ren bigarren*

Ipuintxoak (Santiago de Chile, 1948). 100 orrialde. Eun poesi labur.

Ikuspegi zabala dau geienez poetak. Baita Aita Lontzik be. Praille zanez, erlejiño gaiak erabiltea eskatzen eutson aria geienik adierazoagaitik, ba-ebazan beste alderantzizko ikuspegi ta puntuak be atsegin jakozanak, aitatu doguzan umetxoentzako ipuñiak adibidez. Ia-beti, baiña, Jainkoa, eliza, maitasuna ta olakoak ziran.

Ona au "Maitasun-erroa" deritxona, "Karmen'go Argia"-ren 4'gn. zenbakian, 1931gnekko jorrallean datorren bost estrofakoa. Irakurri:

"Agindu zeustan zeruak, Jauna, enau ekarten Zugana,
ta gaiztokiko su-gar bildurraz eztot lagatzen obena;
baña maitasun zintzo sutsuaz gartu zeustandik barrena,
Zu zara nire biotzarentzat maite ta kutun on-ona.

Zure Biotzaz nire biotza maitasun gar bat egiñik
begiak itxi edegi baten ipinteko oso osorik,
ez al da naiko Gurutz orretan ikustea Zu eskeirik,
esku ta oñak iru untze lodiz nire onarren josirik?

Zure gorputza ikusi dauna odolez oso bustita,
burua zear beatzeraño errekatxo bat eginda,
maitasunaren maitatasunez biotz guztia erreta,
Zure aurrean apaltasunez ez da agertuko etzunda?

Nire biotzak eztau maitetu egundo Zure izenik,
bide onetik dabiltzanentzat daukozulako zorunik:
nire biotzak bere maitatzat artu zenduzan unetik,
sari-zigorren ardura barik maitatu zaitu gogotik.

Bide nasaitik doazanentzat ezpa'zeunko be zigorrik,
gaur letxe bardin egingo neuke alde gaiztoki bidetik,
ta agindu zeusten sari joria emon ez arren poz-pozik
ludia zear nabillan arte Zu maitetuko zaitut nik".

Neurkerak, guztiz ezbaridiñak txandaka egin oi ebazan; geien alan be zortziko nagusia zan aren lumak landua. Egoki etorren, antza danez, bere izakeraz eta idaz-jarioz, olerki onetatik ikusi daikagunez. Izlari bezela, bete ta oparotsu zalako, Kikeron deitzen geuntson.

Eredu lez irakur "Gaiztoen Zorionak" eritxon artikulutik artutako zatitxo au. "Goxetik gaberaño —idaz-

ten dausku— lanean sendo dierduen idi ala beyak, ganeko egun baten aragitegian ilteko, kortan beste zeregin berik gizentzen dagoan lagunari begi txarrakaz begiratu ta ugazabari ekin bearrik ezpa'dauko, atsekabe, neke, oñaze, txirotasun eta beste zoritxarpean ludian bizi diranak ba, aberastasun-ondasunen erdian, mundua zear, arrokeriz kukurrukuka ta makalak ostikoperatzen dabiltzan ari-

ma gaizto, zantar, lapur ta lotsa-galdukoari iñartsiz begiratu ta Jaungoikoari ekin bearrean, gaiztoari errukitasunaz begiratu da jaungoikoari biotzik eskartsu ta zintzoena agertu bear dautse".

Ez esan gero, irakurle, euskeraz ezin leitekela idatzi esaldi luzerik. Eta ondo apaindutakorik.

AITA ONAINDIA

EUSKERAZALEAK 1984 SARIKETEAK

Euskerazaleak Alkartearen Sariketan aurtengo ekainandian sarituak izan diren lanak, ZER aldizkari onetan argitaratuko dira, baiña argitaratze ori datorren illeari dagokion zenbakian egiteko geratzen da.

IDAZNOLAKOAK.

Euskalerritik Mundura Begira Itxasoa

Ondarru'ko bi arrantz-ontzi Frantzi'ko L'Orient deritzan kaiera kañoi-ka eramanak izan dira.

Kañoilaria, Frantzi'ko Jaurilaritza sozialista.

“Liberté, égalité, fraternité”, oi ugin oi dabe, arro, frantziarrek. Baiña deadar ustel orreri ederto erantzun eutsan Ipar-Euzkadi'ko bertsolari batek:

“Liberté, égalité, fraternité?

Ai, iru gezur oiek egia ba'lite”!

Ondarrutarrek, “ur aiek gureak dira eta andik ez gara joango”, diñoskue. Frantziarrek, alderantziz, ur aiek dautsoela an arrantz-egiten utziko. dautsoela en arrantz-egiten utziko. Guri ordea, galde bat sortarazten dausku eztabaida orrek: Itxasoa..., norena da?

Bai al daki bada iñork itxasoa norena dan? Eta zaillagoa dana, bai al daki iñork itxasoak norenak izan bear daun?

Mundu ontan zerbait gizakume guztiona izatekotan, badirudi zerbait ori itxasoa izan bear leitekela. Badirudi, lur legorra amaitzen dan punttuan amaitzen dirala gizakumeen jabetasu-

nak, eta, andik aurrera, itxaso zabala, mundu guztiko gizakume guztiona dala.

Baiñan ez!

Aspalditik Laterriek (Estaduek) berena egin nai izan dabe itxasoa.

Amaseigarren mendean asi zan itxasoko uren jabetzari-buruzko eztabaida. 1609'an argitaratu eban Olanda'n Grozio legiztilari ospetsuak “Mare Liberum” (“Itxaso jarea”) izeneko liburua. Bertan, itxasoa gizadi osoarena zala esaten eban. Orixe bera esanaz argitaratu euskun beste bat 1625'an: “De Jure Belli et Pacis” (“Pake-Guduen Zuzenbidea”). Baiña laister erantzun eutsan Ingalderriatik Jon Seldan'ek “Mare Clausum” (“Itxas Itxia”) zeritzan liburu baten bidez 1635'ean, itxasoak Laterrien artean zatituak izan bear ebala esanaz.

XVIII mendean, laterrien jabetasuna itxasoan su-izkilluek iristen ziran tokiraiño iristen zala idatzi eban Bykershoek olandarrak (1702). Berealaxe, 1782'an, Galini italiarrak aipatu eban lenengo aldiz iru “milla”-en neurria. Amaika urte geroago Amerika'ko Laterri Alkartuek, Galini'ren asmakuntza ontzat emanaz, beren agintepean artu ebezan itxas-ertzetik aruntz iru “milla”z zabaltzen ziran

urak. Arin jarraitu eutseen beste laterriek ere.

Orrela egon ziran gauzak XIX mende osoan. Baiña XX'ean, 200 millara luzatu eban Peru'k bere jabetza. Peru'ren atzetik, Islandi'k, Senegal'ek gero, eta geroago Marok'ek, Mauritani'k, eta 1971'an Mexiko'tik beerako amerikar Laterri danek zabaldu eben, batzuek geiago besteek gutxiago, beren itxasoetako eskubidea. Gaur, ia Laterri guztiek luzatu dabe 200 millaraiño itxasoari-buruzko jabetasuna.

Zergaitik? Gogoak eman dautselako!!!

Arrazioia? Beren gurari utsa!!!

Bai al dabe ori egiteko eskubiderik? Ikusi dagigun:

Frantzi'ko eta Espaiñi'ko Laterriak sortu baiño askoz lenago, arrantzale euskaldunak joaten ziran, gaur Frantzi'ko Jaurlaritza sozialistak bereak dirala esaten dauskun uretara. Zergaitik esaten dau bereak diral? Gogoak ematen dautsolako. Baiña gure arrantzaleak frantziarrak bezain azkar, edo azkarrago!, joan ziran itxas-baztar artara. Beraz, Frantzi'ko Jaurlaritza sozialistak baiño eskubide geiago dabe gure arrantzaleek ur aiek, —iñorenak izatekotan—, berenak dirala esateko.

Espaiñi, Espaiñi izan baiño len; eta Frantzi, Frantzi izan baiño len, arrantzale euskaldunak bereak lez euki dabez ur aiek. Orregaitik dabe Frantzi'k baiño eskubide geiago ur aiek berenak dirala esateko. Beiñere ez dabe eskubide ori utzi, eta askoz gutxiago, ukatu. Luzaroan, iñork ezezkorik esan gabe, gauza nork beretzat eukitze orri, "Prescriptio"

esan oi jako legiztian: "Irauteskubidea". Prescriptio" orrek egiazko jabetasuna sortzen dau. Batez ere, zaarra ba'da. Ta gure arrantzaleena izan leikean zarrena da: Legiztian "Prescriptio Inmemorialis" esaten jakona: "Oroitzaurreko Irauteskubidea". Orregaitik, Frantzi'k baiño arrazoi geiagorekin esan daikere ur aiek berenak dirala.

Badau legiztiak beste arrazoi bat ere gure arrantzaleen alde: Mendezmende etenik gabe jardun dabe gure arrantzaleek an arrantzan. Etengabetasun orrek "Servitudo" edo "Jabepekotasuna" sortzen dau. "Zorra", lengo euskaldunek esaten ebenez. Eta itxaz-arazoetaz ari garenez, "Ur-Zorra" esan daikeogu "servitudo" orri. Ur aiek, an arrantzan egiten uztea zor dautsee euskal arrantzalei, eta Frantzi'ko Jaurlaritza sozialista ez da iñor ur aiek euskaldunei zor dautsena euskaldunoi jasotzea debekatzen. Urte batzuetako jardunketa naita izaten da "zor" ori sortzeko. Euskaldunak ordea mende askotan jardun dabe an arrantzan. Berdiñik ez bezalakoa da, beraz, ur aiek euskaldunoi dautseen zorra.

Ondarrutarrak Espaiñi'ko jaurlaritza sozialistarekin asarre dabiltz. Ez omen dauz Espaiñi'ko jaurlaritza sozialistak, Frantzi'ko Jaurlaritza sozialistaren aurrean, bear bezala babestu. Ez bitez arritu ondarrutarrak. Esaera zat batek diñoanez, "otso gaiztoak ez ei dautso otso gaiztoari aginkadarik emoten". Ezta ere Jaurlaritza sozialistak jaurlaritza sozialistari!!!

Latiegi'tar Bixente.

PRAI BARTOLOME'REN EGUNETAN (I)

Ez nator Alta Prai Bartolome de Santa Teresa, euzkal sermolari ta idazle ezagunaren bizitza edestutera edo bere liburuen azterketa egitera. Ez naz ortarako trebea, eta gañera, batek baiño gelagok orren barri ego-kiro jakin erazi dauskue.

Nlre idazlan onek asmo estuagoa dau. Prai Bartolome euzkal sermolari lez bizi izan zan Markiña'ko komentuan. Napoleon'en gudaroztea Markiña'n sartu zanean, emen zan gure predikalari ospetsua. Prantzitarrek eta euren Euzkal Erri'ko eusleak egin ebezan kalteak jasan eta zeatz-meatz edestu euskuzan Alta Bartolomek. Baiña ez zoritxarrez, gatzaz eta ozpiñaz ain egoki ausituten ekian euzkera ederrean, gazteleraz baiño. 1808'gn. urtetik 1815'gn urteraño-koak dira gertaerok.

Leenengo buru-asteak

1808-gn urtera arte, Europa osoa matxinadan murgilduta ebillen bitartean, Markiña'ko prailleak bake santuan iñarduen euren zeregiñetan. Komentua gainezka praillez beteta egoan, korukoak esaten eutsenak 22 eta bestelakoak 4 zirala. Orrez gañera, urte onetan bertan Iruña'tik alde eginda, beste 17 ikasle ta 4 irakasle etorri ziran Markiña'ra. Orra ba guttiz 47 Karmeldar komentuan. Etziran gitxi, eta sekulako aalegiñak egin bear zituen prailleak ainbeste ago beteteko, batez be, orduko gerra-sasoian.

Urte orretako Irailla'ren azkenaldian gauzak aldatzen asi ziran, eta ez oberuntz, ain zuzen be. Prantzitarren aurka jagi ziran erri-soldauak euren erasoaldiak indartu ebezan, eta laster menperatu zituen Larrabetzu, Galdakao ta Arrati-aldea. Prantzesak, euren aldetik, Durango'ri ta Zornotza'ri eutsi eutsen. Ala eta guzti be, estu ebiltzan oneik eta mugati beste

aldera jaurtiak izateko arriskuan ikusi eben euren burua. Estualdi onetan Napoleon'ek berberak guda-zuzenketa bere eskuetan artu bear izan eban Espaiña osoa menperatzeko asmoz.

Euskal Erri'ko buru lez Danzig'eko Dukea, Lefebre Gudalburua, izentua izan zan. Onek laster garbitu zituan bazter guztiak.

Bitartean, Markiña'ko prailleak Prantziatarren aurka zeruko santu guztiei erreguak egiten ziarduen, nai ta asmo ori ezkutuan agertuz, inguruan salatari batzuk aurkitzen ziran-eta.

Salaketak

Prantzesen Gudalburu ta Bizkai'ko Jaurleri J. J. Abril'ek Markiña'ko Alkate Jose Joakin Gaitan Barroeta'ri karta bat bialdu eutson emengo jazorak, eta batez be prailen jokabidea, etzirala Jaurliaren gogokoak iragarritz.

Alkateak idazkiaren zati batzuk ixillean komentuko Nagusiari erakutsi eutsozan. Prailleak bakearen arerioak eta basatiak baiño txarragoak ziralako, "legezko agintariei" aurka ziar-duela, izkanbillak sortzen ete ebizen aztertzeke. Olakoren bat egiztatuko ba' litz, prailleok ondo lotuta Bilbo'ra bialtzeko, iñoan J. J. Abril Jaunak bere eskutitzean. Nagusiak komunidadeari jakinerazi eutson, salaketa orrik nundik etozan jakiteke.

Auziok aztertzeke On Lino Zaroa, Gazteiz'en Prantziskotarra izanekoa, eta sasoi atan Danzig'eko Dukearen kapellaua, bialdua izan zan Markiña'ra.

Onexek ziran azertu bear ebazanak:

—Prailleak Napoleon'en eta bere anai Jose I, Espaiña'ko Erregearen aurka berba egiten ete eben.

SANTU EUSKALDUNAK

GARILLAK 31

LOIOLA'KO INIGO DEUNA

Azpeiti'ko Loiola torretxean jaio zan 1491 urtean.

30 urtera arte gazte "zoroa" izanik, Iruña'ko gazteluan zauritua izan zanean, eriotza atejoka ikusi ebanean, Jaunagana biurtu zan.

Osatu zanean, Arantzazu'ko Amarengana joan zan, bere pekatuen parkamena eskatzera, eta andik Montserrat'era.

Manresa'ko koba-zuloan bere pekatuen penitentzia urte betean egin ondoren, Jerusalem'go bidea itsasoz artu eban, an beti bizitzeko asmoz. Baiña kristiñauen eta moroen arteko guda sortu zanean, Barzelona'ra barriz etorri bearrean aurkitu zan.

Meza emoteko asmoa artuta, Salamanka'ra eta Paris'era joan zan, ikasketak egitera.

Paris'ko Unibertsitatean ezagutu eban Xabier'ko Frantzisko, gudaldian bere etsaia izan zana. Lengo gauzak aztuta, euskaldun biak lagun aundiak egin ziran, Paris'en bertan. Beste lagun gutxi batzuk bilduta, "Jesusen Lagundia" sortu ondoren, Erroma'ra joan zan, eta an beti bizi izan zan eriotzararte. 65 urte zituala il zan.

Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko "Junta Nagusiek" lurralde oneitako zaindaritzat aukeratu eben Loiola'ko Iñigo.

LOIOLA'KO INIGO "TRAIIDORE"?

Onelako esaldi au askotan entzun dot:

Xabier'ko Frantzisko euskaldun zintzoa izan zan, baiña Loiola'ko Iñigo "traidorea".

Bigarren esaera au zenbateraiñoko egia dan, lantxo onetan aztertu gura dot. Gure aldi aretako kondairari ganganeko begirakada bat emon ondoren, auxe ikusi dot garbi-garbi.

Loiola'ko Iñigo "traidorea" izan bazan, Gipuzkoa osoa, eta gipuzkoar guztiak "traidoreak" izan zirala.

Begira daigun:

1200 urtean asita, Gipuzkoa itzarmen edo pakto baten bidez. Kastillarekin alkartuta zegoan (gaurko OTAN edo PAKTO DE BARSOBIA dalakoaren antzera). Eta Naparroa, beste aldetik, Frantziarekin.

1521 urtean Iñigo Iruña babestera joan zanean, Gipuzkoa osoa, eta gipuzkoar guztiak Kastillaren alde jarri ziran.

Gertaera au baieztatzeko lekuko-testigu asko ekarri daitekez.

Jose de Artetxe, euskaldun kondailari abertzaleak au diño:

"Iñigo de Loyola gestiona cerca de la JUNTA GENERAL DE GUIPUZCOA (así usa de nuestro país el enemigo) una "levantada" de soldados como socorro", Iruña babesteko.

Eta Villoslada'k diño:

"Iñigo de Loyola corre a la capital de navarra con tropas guipuzcoanas" eta Luis María Viana'k:

"Iñigo fue a pedir refuerzos a Guipuzcoa... El 16 de mayo de 1521 las AUTORIDADES GUIPUZCOANAS expresan su lealtad incondicional el Cardenal Regente de Castilla... La primera expedición de unos cientos reclutados a toda prisa principalmente en Oyarzun llegó a Pamplona el 18 de Mayo."

Eta Martin de Ugalde, gure kondailari eta idazle ospetsuak diño: "Bazan iru gizaldi baiño geiago gipuzkoarrek Kastilla'ren ardatzaren inguru zebiltzela biraka... Guduketa orretatik datorkioz Gipuzkoa'ko armarriari (eskudoari) bere 12 kañoiak".

Esateko lotsagarri da, baiña egi latza da Jose Artetxe'k diñoana: Gure azken guda onetan legez, orduan ere euskaldunak zatituta aurkitu zirala.

Gipuzkoa Kastilla'ren alde eta Nafarroa Frantziaren alde azkenean Kastilla'k irabazi, eta Euskalerra osoak galdu.

Noiz ikasiko dogu?

Beraz, Loiola'ko Iñigo "traidorea"?

Gipuzkoa osoa ere "traidorea".

Goikoetxea'tar Iñaki.

ESKU-IDAZKIAK

XXIX Gorapen-abestia

XVI sorta

.....

² [Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,]
zure espiritu santuaren bidez
³ zeure biozperatasun osoa [ulerterazo daustazulako].
Ulertu dot izadi guztia,
zeru-lurrak,
zeure aintzaren ditziraz argitzen dirana.
⁴ Zeure naiaren bidez egiten dautsazu lagun
eten bagarik gizonari,
zure eskintzak betiko iraungo dau.
⁵ Ba-dago gizonari dagokion toki bat.
Zeuk erakutsi zeutsan,
or zure erabagietan sendo iraun aal dagian.
⁶ Gauza guztiok ezagutzen dodazan ezker,
aterpe bat iragarten dot nigandik urrun.
[Orreaz] neure agindu-austeak estaldu nai izatea
[obena izango litzake].
Zeure egiazko espiritua billatzea da [nik gura dodana].
⁷ Ni zeure espiritu santuan garturik.
Zeure Alkartasunaren irakurte bikaiñari itsasirik
[...], aundikeri bagarik, eragozpen bagarik.
Nire biotzak txinpartak ataraten dauz zure izenaren maitasu-
nean.
⁸ Bedeinkatua Zeu, Jauna, izadiaren egille,
bizi-iturburu, egintzetan aaltsu ori!
Zeurea da sortzearen ugaritzea!
Eskerrak Zeuri, niri buruz
⁹ biotz ona erabiltea
eta ni zeure errukien ekarriaz
eta zeure aintzaren ondasunaz
laguntzea erabagi dozulako.
Zeuri soillik dagokizu zuzentasuna,
aalegiñik egin bagarik dana egiten dozuna
Zeu zara-ta.
¹⁰ Neure gorputza garbitzeko aalegiñak egiten dodaz,
Zuk espiritu zuzenean ezaugarri bat jarri dozuna
ba-dakit-eta.
Bazartu egiten dot edozein bidebagekeri.
Zure otsein onek gorroto dautso edozein zuzenbagekeriari.
¹¹ Ondo dakit nik zuzena iñor be ez dana, Zeu izan ezik.
Orregaitik, nasai aurkezten naz zure aurrean,
nigan isuri dozun espirituan [sendotuta].
¹² Zeure gurariak burutzeko aalegiñak egiñik
alkartzen dodaz zure ondasunak.
Nire burua santutasun-espirtuaz garbiturik.
Zeure maitasare negurtu-eziñak erakarrita

urreratzen nakizu, zeure naitan,
[beti] 13 [...] nigaz [...] zure maitasunean [...]
Zu maite zaituenentzat aukeratu dozun zatian [...]
zeure agindua gordeten dabeneztat
eta betiko zeure aurrean egon daitekezanentzat.
¹⁴ Zure morroiak beronen egintza guztietan
espirituan eskuartzea [billatuko dau].
¹⁵ [...] Ez dagiala agindu-austerik ausnartu
zure Alkartasunetik kanpo [...]. Izan be [...] 16 aintza [...]
[Jaun] errukior ori, erruki izaten eta parkatzen ugaritsua [...]
Gaiztakeria parkatzen dauan A
¹⁷ eta parkamen aundia (dauana) agindua gordeten dabeneztat
[...]
eta biotzez eta oso-osorik onbideratzen diranentzat
¹⁸ Zeu otseintzeko ta zure begien aurrean on dana beteteko.
Ez okertu zure aurpegia zure morroiagandik
eta ez [egizu bazartu] zure mirabearen semea.
¹⁹ Eta nik zeure berban ezarriko dot ustea [...].

XXXI GORAPEN-ABESTIA

XVII sorta.—Oarra: Salmu au ez da ondo ulertzen: narrutzak muskilduta, antza

¹ Txikiak, negurri bagarik [...].
² aren jakintza agertzen dabe o... gaiztakeria
³ iruntsiten dauna o...urteten dan
⁴ toki legorra [...] babes-bagea].
⁵ burrukan bat-batean sarturik [...]
⁶ zeure espiritu zeatsak billatzen dau,
⁷ sendotasun-espirtuaren aginduak jaurtiko dau
⁸ esturetan [...]
⁹ ezin lortu izan dabezan gauza eskuakaitik.
¹⁰ Dongakeri-zentsun eta bururapenakaitik [...].
¹¹ auziagatik o...]
zure morroia agindu-auste guztietatik garbitzeko [...]¿
¹² Moises'en bidez esan dozunez [...]
agindu-austea ta pekatua, saldukeria ordaindurik
¹³ [eragin] egingo dautsesu mendien ondopeai eurai [...]
eta suak Sheol'eko sakona be iruntsi egindo dau
[... oben agiten ba'dabe].
¹⁴ zure auziak [...] sinismenez otseintzen zaituen guztiai /edo
guztiai?)
arein ondorengoak zure aurrean
egun guztietan iraun dagien [...] eta [...] sorrerazoko dozu(z),
¹⁵ [arein gaiztakeri] guztiak urrun jaurtirik
¹⁶ eta Adan'en eta gizaldi-taldearen aintza guztian
areik erdikide egiñik.

KEREXETA.

Euskotar andra ospetsua

Nok ez dau entzun "Pasionaria" noriki onetaz? Ziur emongo eutsoen erderazko izen au jarduten zalako su-ta-gar zalekeriz komunisten arazoetan. Bere bateoko izena Dolores da eta abizena Ibarruri. Argiro abizen euskalduna. Ez eutsoen irakatsi euskeraz, ibai Nerbion'go eskerrekaldeetan antxiñetik ez dalako berba egiten euskeraz, bear balda Burgos Eleizbarrutiko lurra zalako, eta Eleizea orain arte beintzat izkuntza, jakintza ta beste gizarte egintza danetan eragille, zuzentzaile izan da...

* * *

Baina zelangoa izango da andra au, Dolores Ybarruri, ain urtedun izan arren-89 urte daukoz-komunisten Lendakari izateko ondiño? Nire gurari, leiaz eta ikas-miñak narabilda, ibilli nebiltzan eskez "Pasionaria'ren" bizitzako jakingarriak eta emon eusten beronek idatzi ta biziriko jasorikoen 585 orrialdeko idatzi bat. Batikano Bigarren osteko katolikuen Teologija ez da ain estua lenagokoa izaten zan lez. Egiaren, ontasunaren monopolio saltzaille bakarra Eleizea ei-zan. Baiña ezta izan bear. Komunistek Jainko bakoak dira ta Jainkobakoen artean ba-dire gauza asko baikor eta onurazkoak. Onelango bat aurkitu dot Dolores Ybarruri'ren kondaira-bizitzean 121 orrialdean. Atzalburu bat asten da ta beraren zear irakurri dodana esango deusuet. Guztiz erudugari kristiñautzat, ta ebanjelioko orrietatik aterata...

* * *

"Gure errian —Gallartan— diño Pasionaria'k abade bat egoan guri komunistai, era guztietara, ikusi-eziña euskuna, batez be, nitzat eukan ezin gorde eikean begitan artua egun batera arte"... Ybarruri'ren etxe ondoan egoan ama bat bere alabak irabazten ebezan uri etxeko alogorakaz otseintzan bizi zana. Bein alaba bat jausi yakon bularreko gaisoaz. Ybarruri (Pasionaria'k) ikusirik amaren neke-saminatsekabeak, amari lagunduteko gabetan aren etxera joaten zan. Amak atsedean apur bat artzeko lo egiten eban bitartean, berak (Dolores'ek) gaisoaren ardurea eukan. ¡Pasionaria komunistea zan, baiña ona, errukitsua ta Jesukristok bere ikasleai agindu eutsen lez, gaisoak ikustera joaten zan!!

Erukizko egintza au egiten irugarren gabeen egoala, eldu zan ara abade txanburua. "Enintzan aldendu-diño Ybarrurik-erantzun neutson aren agurrari". Eta olan gau osoa igaro eben abadeak ta komunisteak gaisoaren ondoan oneri lagunduten ta

emoten biak batera gauzaren bat eskatzen ebanean, baiña bien artean berbarik egin barik.

Goizean bere etxera urten eban Dolores'ek agur eginda abadeari. Au be joan zan Eleizara Mezea emoteko. Urrengo gabeen gaisoaren ondora eldu zan Ybarruri ta abadeak antxe aurkitu eban barriro bera be etorri zanean. Gure Pasionaria komunisteak auxe diño bere edesti-bizitzean: "Gizatsuago egoan, arpegi illun gogorra argitu jakon. Bigunago agur egin eta jesarri egin zan. Alkar-izketa egiten asi zan. Eguraldi, uzta, gari, arto solo, lur-sagar gaietaz. Izotza apurtu egin zan."

* * *

Olan jarraitu eben gau guztietan gaisoa il arte. Ondoren, il zanaren senitartean euren gogaera edo pentsabidea komunistekana zerbait aldatu zan. "Eta zerbait barri ez oiturazkoa egin zan abadearen eta onen senidien egoera guganantz". Diño Dolores'ek. Arrezkero, komunistekin abadea kalean aurkitzen zanean, ez zan igaroten beste oin-bide egalera. Agur egiten eutsen bigun eta gizatsuz, batzuetan oiturazko gaiaz berba egin be bai. Ibarruri'tar Dolores'ek abadearen bizitzako barri batzuk diñoskuz. Ugerlari andia zanez, uger egitea atsegin izaten yakola. Baiña ondartza agirian uger egin bearrean meaztegi ondoan itxasora sartuten zan atx ebagi arriskutsu artean. Goiz baten uretara sartzean, ango toki bakarrean laprast egin eta ankea apurtu eban. Itxas-ondoko atxulo baten geratu zan, bildurrez, itxas-goran itoko ete zan. Askoz geroago, langille bat andik igarotean, bigunez, aieneka, ur-jantsiz gizon bat ikusi eban, erriko txanburua zala oartuz. Lagundu gura eutson. Berak itxas-atxartetik bakarrik atara eziñez, ariñiketant meatzara joan zan beste lagun batzuk ekartera. Langille lagunek, danen artean, abadaea ilkor atxulotik atara eta esku-oez gaxotegira eroan eben. Ona eldu zan il-bizi egoeraz, eta egun batzuk barru il egin zan gazdun ustelduraren erruz.

Abadearen arreba batek "Pasionaria" Ibarruri'ri aren argazkia eriotz-oroigarriztat bialdu eutson, mesedez ez egiala jaurti eskatzen eutsala. Ybarruri'tar Dolores'ek ez eban jaurti, ez, bere etxeko gelan gorde baiño. Onen kondaira-bizitzatik, atara dodaz emen idatzirioko barriak.

¡Ez da, ba, "Pasionaria" komuniste bildurgari deabruduna! Ikusi dogunez, bai, bear danean, biotz oneko andrea bai.

Letona'k.

IBARRANGELUA'K

Igokundearen Martin Deuna (San Martin de la Ascensión) Ibarrangelua'ko dala gu ziur-ziur gagoz. Gutariko batek oraintsu ikaskuntza-azterketak egin dauz eta zio arrazoi argi, akabaila, sinist-arazleak aurkitu ditu zalantza barik baieztu ta esateko Bizkai'tar Ybarrangelua-koa dala Ygokundearen Martin Deuna.

* * *

Ona emen proba, argibideak.

Orozko'ko Zalao'n dagon etxe baten orain iru edo lau illabete dirala gure taldeko bat egon da, ta lauki andia ikusi dau goitik bera naurki bat eta 50 neurkin-eunen albo batetik bestera. Lauki (kuadro) orretan berbaz-berba irakurten doguz erderaz, ori bai, guk orain emen euskeratuko doguzan erderazko berbak eta garo gura dabena agiriago gaia izan daiten an dagozan erderazko berba eurak: "Igokundearen Martin Deuna Bizkai'ko Jaunerrian (jaino zan) Agirre Jatorriko Etxaldean. Alcalá de Henares'en egin ebazan ikastaroak Aita, San Fantzisko oñuts Frantzisko tarren praille soñekoa artu aban. Mezumisiolari izateko Japon'era joan zan. Jaukristo'ran Barri Ona zabalduen ziar duala, leiñargi martiri odol-aitortza lortu eban.

* * *

"Histoire et description du Japon" liburuan Josulagundiko Aita Pedro de Charlevoix'ek 1730'an Ybarrange-

lua'n Bizkai'ko Jaunerria'n jaino zala Martin Deuna diño.

* * *

Geroago Aita Galdosek Aita Frois'en idatziari eutsirik Ybarrangelua'ko dala Martin Deuna baieztan dau. On Julio Urkijo'k eta beste idazle batzuk Donosti'ko "El Diario Vasco"ta "el Pueblo Vasco" albistarietan bardin diño.

* * *

Gutariko bat gurariz egi osoa obeto jakiteko, ta sendoago ta argiago euki dagin. Bizkai'ko erri polit Ybarrangelua'ra eldu da, eta an txanburuagaz berba egiñaz ta itaunketaz auxe jakin eban: erri onetan Agirre izeneko iru etxalde dagoazala: Agirre goiko, Agirre erdiko ta Agirre beko: San Martin Agirre erdikoa dala; erriaren aozko jakintzean beti esan ta esaten dala San Martin emengoa dala, eta askotan be gurasoak euren umeai bateo aldiari Martin izena, deunaren oroigarritzat iminten dautsela; aldi aretako Bateoen Liburuan San Martin jaino zanari dago-kion urte-eguneko orria azpekarizko esku batek apurtu, kendu ta atera ebala.

B.B.A.: Biskaitarrok Bizkaiaren Alde.

(Talde au gertu, prest eta pozarren egongo litzake bigun gizabidezko eztabaidea egiteko euskeraz ta erderaz gura dabenez.)

BARRE EGITEN DAKIN...

Barre egiten dakin
lagunik baldin ba-dok
bera datorrenean
dizdiratsu, pinpirin,
zure ingurunean
eguzkia sartu dok.

Nik ba-dot lagun bat
dakina negar egiten
mundu guztiarentzat
zirimirizko euritez
erosta balzak jotan
txistu ta danboliñez.

Nik ba-dot lagun bat
dakizana txori
azkeak margotuzten
ederrik ta bizi

goiak egaztuzten
zuretzat ta niretzat
bideak edertzen.

Nik lagun bat ba-dot
dakina dantzatzan
aurrezku nai foxtrot
egalak alaitzen
emen dok ta an dok
maitez maiteratzan.

Barre egiten dakin
lagunik baldin ba-dok
bera datorrenean
dizdiratsu, pinpirin,
zure ingurunean
eguzkia sartu dok.

Muniategi-tar Sabin.

"EL BATUA"

**EZ DA
EUSKERA**

"Batua, euskeraren ilgarri ta erderaren bizigarri."

AKESOLO'TAR LINO
(EUSKERATZAIN'TZA'ren Lendakaria)

Berba orreik merezi dabe barriz aitatzea: "Batua euskeraren ilgarri ta erderaren bizigarri"... Orra or begia bezelako egia! Ez da errez ain berba edo itz gitxitan egi andiagorik esatea! Zorionak, ba, gure euskal-idazle sakon eta jatorrenetariko Akesolo agurgarriari!

* * *

"El batua" erabiltzea erri-euskeraren eriotzea dala ondo baiño obeto azaltzen da Latiegi'tar Bixente ta Oñatibia'tar Dunixi'ren "Euskaltzaindiari Epaiketa" idazti bikaiñean. (Idazti oso eder ori benetako euskaldun guztiak irakurri bear leukie).

Beste egi zeatz eta zorrotz askoren artean au diño: "Euskalkiak iltzea, erriaren euskera bizia iltzea, munduan egin ditekera erri-jakintza-ilketarik aundiena izango litzake".

Orain arte erdereak lortu ez dauana: erri-euskeraren eriotza, "el batua" k lortuko ete dau ba?

* * *

Baten-batek ez bairik ba'dauko, argi-argi ikusiko dau emen "el batua" izkera mordoilloa ez dala euskera.

ERDERAZ

Armada
Ejército
Flota

"EL BATUA" N

Flota
Armada
Flota

EUSKERAZ

Guda-ontzidi
Gudaroste
Ontzidi

Zer deritzazue? Siñest-eziña?

"El batua" ren itzak "Hiztegia 80" "el batua" ren iztegi onenatarikotik artuta dagoz... Iztegi ori erdal-itx edo berbakaz beteta dago, ta olako adibideak millaka lortu daitezke.

Arrigarria da zelan "el batua" zaleak ainbeste euskal-itx jator baztatu ta euren orde erdal-tiz edo berbak erabilten dabezan!

* * *

"Hiztegia 80" ta Plazido Mujika nai Azkue'ren edo beste edozein zeuskerazko iztegi bat ikusi ezker, ezin-obeto konturatuko zarie "el batua" ta euskera oso ez bardiñak dirala.

Eta zer esan "el batua" ko UZEI'ren iztegi berezien buruz? Oso egokiak dirala erdera ondo ikasteko.

* * *

Ondorengo adibidean be argi ikusiko dozue "el batua" mordoilloak euskereagaz ez dauala zer ikusirik.

Eusko Trenbideak'en iragarki bat da, ta "ZER" en arterago be argitaratu zan:

"Konkurso Publikoa, Bilbo-Plentziako linearako 18 unitate-tren elektriko adjudikatze" ("Administrazio Kontsoiluak izenpetzen dau).

Ori euskera ba da, nik idazten dodana txinera da!

Zeuk erantzun, ba, irakurle, itaun oneri: bada ala ez da "el batua" euskeraren ilgarri ta erderaren bizigarri?

* * *


Carthago arerio arriskugarria zala ikusirik, kondaira zear ezagutzen diran ondorengo itx edo berbak esan eban Caton'ek, erromatar laterrigizonak: "Delenda est Garthago" (Carthago ezereztu egin bear da!).

"El batua" be euskerarentzat, erriaren euskera biziarentzat, arerio arriskugarria da... Orregaitik, izkera mordoillo orrek erriaren euskera bizia ezereztu baiño lenago, ez ete da eldu ordua esateko: "El batua" ezereztu egin bear da!"

Ba Shakespeare'k esan ebanez... "that is the question"... Arazoa ori da: "el batua" euskeraren ilgarri ta erderaren bizigarria ala betiko erriaren euskera bizia?

Ezinbesteko arazoa, baiña azkenean Olazar'tar Martin'ek esaten dauana: "Erriak kondaira luzean sortu dauan euskera bakarra izango da euskera batua".

BILBAO'TAR JON E'K.



Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia